

# Herriak eta kaleak gizarteak eraikitzeko plazak. Herri hezitzaileak eta kulturgintzaren transmisioa Euskal Herrian



**16.Uzt - 17.Uzt**

**Kod. K05-18**

**Edizioa**

2018

**Jaduerara mota**

Ikastaroa

**Data**

16.Uzt - 17.Uzt

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**ZUZENDARITZA**

**Joxe Garmendia Larrañaga**, UPV/EHU, Hezkuntza, filosofia eta antropologia



## **Antolakuntza Batzordea**

Fundación **BBVA**



## **Azalpena**

Ikastaro honen xedea zera da: herri hezitzaile kontzeptuaz hausnarketa egin eta gure herrietan garatzen den hezkuntza, balio, kultur transmisio eta sormenaz hausnartzea.

Bide batez, udal erakundeen eta herri mugimenduen ekarpena kontutan hartuz, hezkuntza eta kultura oinarri izanik, Euskal Herriko hainbat herritan egiten ari diren egitasmo berri eta sortzaileak azaltzea.

## **Helburuak**

- 1.- Gure herrietan garatzen den hezkuntza, balio, kultur transmisio eta sormenaz hausnartzea.
- 2.- Kulturgintzaren transmisioa ondoko esparruetan bermatzen dugun ondorioztatzea: hezkuntza arautuan zein ez-arautuan, formalean zein ez-formalean eta etxe-giroan edo familian. Nori, zer, zein eremutan bermatzea dagokiokeen proposatzea.
- 3.- Herritarren arteko elkarrizketa eta elkarrekintza sustatzeko baliabideak eta proposamenak bultzatzea, giza taldeek partekatutako proiektuak bilatu nahian; betiere, ikuspegi kritiko eta arduratsu batetik abiatuta.
- 4.- Herritar guztien, eta bereziki haur eta gazteen, garapen pertsonalaren, sozialaren, moralaren eta kulturalaren garapenerako udal gobernuak eta herri mugimenduek egiten ari diren ekarpenari buruzko hausnarketa eta proposamenak egitea.
- 5.- Herritarrek, eta bereziki haur eta gazteek, inolako bitartekorik gabe jasotzen dituzten kultur, olgeta, informazio eta publizitatearen arloko zein bestelako proposamen eta errealitateen eragina aztertzea.
- 6.- Kulturgintza ekosistema oso legez hartzen duten esperientziak ezagutaraztea. Esperientzia horiek orokortu daitezkeen hausnartzea.

## **Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak**




## Programa

### 2018-07-16

09:00 - 09:15	Aurkezpena, dokumentazio banaketa
09:15 - 10:30	“Ciudad y cambio de época. Educación y cultura como alianza clave.”  <b>Joan Subirats Humet</b> Bartzekonako Unibertsitate Autonomoa - Bartzelonako udal gobernuko kultur ordezkaria
10:30 - 10:45	Geldiunea
10:45 - 12:00	“Herria, hizkuntza, kultura, generoa”  <b>Lorea Agirre</b> HUHEZI (Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea) - Irakaslea eta "Jakín" aldizkariko zuzendaria
12:00 - 12:15	Geldiunea
12:15 - 13:30	“Denon artean egindako herria, denontzat”  <b>Joxe Mari Auzmendi Matxain</b> HIK HASI - "Hik hasi" pedagogia aldizkariko sortzailea eta koordinatzailea
13:30 - 14:00	Sintesia
16:00 - 18:00	Mahai ingurua: “Herri Hezitzaileak: zertan ari gara eta nora goaz”  <b>Joxe Garmendia Larrañaga</b> EHU - EHUko irakaslea <b>Belen Maiza Urrestarazu</b> Ordiziako Udala - Ordiziako zinegotzia <b>Leire Goenaga Uzkudun</b> Azpeitiko Udala - Azpeitiako zinegotzia <b>Ibon Iza</b> Dimako Udala - Dimako zinegotzia <b>Nora Salbotx Alegria</b> Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Irakaslea

### 2018-07-17

09:00 - 09:15	Sarrera
09:15 - 10:30	“Kulturgintza eta herrigintza: sorkuntza, plaza, komunikazioa eta transmisioa”  <b>Gotzon Barandiaran</b> Idazlea
10:30 - 10:45	Geldiunea



10:45 - 12:00	<p>“Kultur sorkuntzen transmisioaz”</p> <p><b>Iratxe Retolaza Gutierrez</b> EHU - Irakaslea</p> <hr/>
12:00 - 12:15	<p>Geldiunea</p> <hr/>
12:15 - 13:30	<p>Mahai ingurua: “Zein da erakunde publikoen eta herri-mugimenduetatik sortutako erakundeen egitekoa kulturgintzan?”</p> <p><b>Gotzon Barandiaran Arteaga</b> (Moderatzailea) <b>Josu Lakaba</b> Azpeitiko Udala <b>Nerea Zubiaur</b> Oñatiko Udala - Kultura zinegotzia <b>Andoni Garcia Imaz</b> ASTRA Gernika - Kidea <b>Filipe Bidart</b> Etxauziako kidea</p> <hr/>
13:30 - 14:00	<p>Sintesia</p> <hr/>

## Zuzendariak



### **Joxe Garmendia Larrañaga**

UPV/EHU, Hezkuntza, filosofia eta antropologia

---

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, Graduondoa irakasle aholkulari eta magisteritzan diplomatua. 2003tik Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktore. Ikertzaile bezala, Hiri Hezitzaile eta ikaskuntza Sareetan proiektuekin zerikusi duten hainbat egitasmoetan parte hartu du. Nazioarteko zenbait proiektuetan partaide izan da, horrela europar proiektua den GRUNTVIG-2 eta baita Euskadi-Akitania egitasmoan, emigrazioa eta enplegua ikergaiak landuz. GARAIAN Ikerketa Taldeko partaide da eta talde honetan Euskal Herriko hezkuntzaren historiari ikertu du bereziki.

## Irakasleak



**Lorea Agirre**

---



**Joxe Mari Auzmendi Matxain**

(Hernani)

---



**Gotzon Barandiaran Arteaga**

(Iarrabetzu)

---



**Gotzon Barandiaran**

---



**Filipe Bidart**

---



**Andoni Garcia Imaz**

---



**Joxe Garmendia Larrañaga**

UPV/EHU, Hezkuntza, filosofia eta antropologia

---

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, Graduondoa irakasle aholkulari eta magisteritzan diplomatua. 2003tik Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktore. Ikertzaile bezala, Hiri Hezitzaile eta ikaskuntza Sareetan proiektuekin zerkusi duten hainbat egitasmoetan parte hartu du. Nazioarteko zenbait proiektuetan partaide izan da, horrela europar proiektua den GRUNTVIG-2 eta baita Euskadi-Akitania egitasmoan, emigrazioa eta enplegua ikergaiak landuz. GARAIAN Ikerketa Taldeko partaide da eta talde honetan Euskal Herriko hezkuntzaren historiari ikertu du bereziki.





**Leire Goenaga Uzkudun**

(errezil)

---



**Ibon Iza**

---



**Josu Lakaba**

---



**Belen Maiza Urrestarazu**

(ORDIZIA)

---



## **Iratxe Retolaza Gutierrez**

(Donostia-San Sebastián)

---

Iratxe Retolaza (Donostia, 1977). Euskal Filologian lizentziatua. Literatura kritikaria eta ikertzailea. EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko irakaslea. Liburu hauek argitaratu ditu: 90eko hamarkadako narratiba: literatur kritika (Labayru, 2000), Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza (Utriusque Vasconiae, 2002); Jon Kortazarrek zuzenduriko Egungo euskal eleberriaren historia (EHU, 2007) koordinatu du, eta baita Egungo euskal komikiaren historia (EHU, 2017) ere; Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak (EDO!, 2013) bilduma kolektiboa koordinatu du Isa Castillorekin batera, eta Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat (Emagin/EHBF, 2015) liburua osatu du, Edurne Epelde eta Miren Arangurenekin batera. Kolaboratzaile aritu da hainbat hedabidetan (Berria, Argia, Info7, Euskadi Irratia...). Emagin Formazio eta Ikerketa Feminista elkarteko kidea da.



## **Nora Salbotx Alegria**

(Elizondo)

---

1.973an Iruñean sortua. 1.995ean Magisteritzako ikasketak (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) bukatu eta AEKn irakasle denbora tarte labur bezain aberasgarri batez ibili ondoren, 1996az geroztik Baztango hainbat herri eskolatan ibilitakoa. Amaiurko landa eremuko eskolan "txikien gelako" maistra moduan zein zuzendaritzan aritutakoa 20 urtez. Eskola txikiko lana ikasketa berrieekin uztartuz ibilizalea; Psikopedagogia (Mondragon Unibertsitatea), Hezkuntza eta Komunikazioa (UNED), Hezkuntza Landa Eremuan (Unizar). Gaurko zein etorkizuneko hezitzaileen formakuntzan aritutakoa MUn, NUPen, Nafarroako Hezkuntza Departamentuan, UEUn, hainbat herri ekimen eta eragileren enkarguz ... "Kerizu Beretik" Baztan hezitzaile baten aldeko ekimeneko kide eta dinamizatzaile. Hik Hasiko aholkulari. Hainbat hezkuntza eragilerekin kolaboratzen dihardu. LAB sindikatuan Nafarroako irakaskuntza alorreko koordinatzailea 17-18 ikasturtean. Ama eta eskola txikiko guraso.



## **Nerea Zubiaur**

---



**Joan Subirats Humet**

(Barcelona)

---

## Matrikula prezioak

MATRIKULA	2018-03-01 ARTE	2018-05-31 ARTE	2018-07-16 ARTE
<a href="#">GONBIDAPENA</a>	Tarifaren barne	-	-
<a href="#">OROKORRA</a>	-	60,00 EUR	70,00 EUR
<a href="#">MATRIKULA MURRIZTUA</a>	-	35,00 EUR	-
<a href="#">IKASTAROAK GUZTIONTZAT MURRIZPENA</a>	-	35,00 EUR	-
<a href="#">MATRIKULA EXENTZIOA</a>	-	20,00 EUR	20,00 EUR
<a href="#">ELKAR txarteldunak</a>	-	52,50 EUR	-
<a href="#">AEK euskaltegiko kide</a>	-	52,50 EUR	-



## **Kokalekua**

### **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa